

### 32. AKTA

#### Gune Publikoen Batzardea. Obrak eta Hiri Zerbitzuak

**Batzar mota:** Ohikoa

**Eguna:** 2022-06-13

**Ordua:** 12:30

**Tokia:** Udalbatza aretoa

**Batzordeburua:** Miguel Angel Díez Bustos

**Etorritakoak:**

**Zinegotziak:**

Maria Jesus Idoeta Madariaga

Pilar Arana Pérez

Nekane Arzallus Iturriza

Olaia Duarte Lopez

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego

Marisol Garmendia Beloqui

Jorge Mota Iglesias

Haizea Garay Gallastegi

**Beste zinegotzi batzuk:**

Jon Insausti Maisterrena (27.1. gaia aztertu eta gero joan da bileratik)

Martin Ibabe Eceiza (12:59an bertaratu da bilerara eta 27.7. gaia aztertu eta gero joan da bileratik)

Duñike Agirrezabalaga Ugarte (13:00etan sartu da bilerara eta 13:01ean bileratik atera da; 13:12an berriz sartu da eta 13:20an joan da)

Zigor Etxeburua Urbizu (13:27an sartu da bilerara eta 13:45ean atera da)

Aitzole Araneta Zinkunegi (13:29an sartu da bilerara eta 13:37an atera da)

Marta Huarte Paño (14:02an sartu da bilerara eta 14:06an atera da)

### ACTA N.º 32

#### Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos

**Sesión:** Ordinaria

**Día:** 13-06-2022

**Hora:** 12:30 h

**Lugar:** Salón de Plenos

**Presidente:** Miguel Ángel Díez Bustos

**Asistentes:**

**Concejales y concejales:**

María Jesús Idoeta Madariaga

Pilar Arana Pérez

Nekane Arzallus Iturriza

Olaia Duarte López

Garbiñe Alkiza López de Samaniego

Marisol Garmendia Beloqui

Jorge Mota Iglesias

Haizea Garay Gallastegi

**Otros/as concejales/as:**

Jon Insausti Maisterrena (se retira de la sesión tras el tratamiento del asunto n.º 27.1).

Martin Ibabe Eceiza (se incorpora a la sesión a las 12:59 h y se retira de la sesión tras el tratamiento del asunto n.º 27.7)

Duñike Agirrezabalaga Ugarte (se incorpora a la sesión a las 13:00 h y se retira a las 13:01 h; se reincorpora a las 13:12 h y la abandona a las 13:20 h)

Zigor Etxeburua Urbizu (se incorpora a la sesión a las 13:27 h y la abandona a las 13:45 h)

Aitzole Araneta Zinkunegi (se incorpora a la sesión a las 13:29 h y la abandona a las 13:37 h)

Marta Huarte Paño (se incorpora a la sesión a las



### Beste batzuk:

Prensa (Diario Vasco)

**Idazkaria:** Ana Pérez Galarraga, Idazkariak eskuordeturik.

\* \* \*

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin diote:

\* \* \*

Jon Insausti bertan denez, bertaratutako guztien adostasunaz, batzordeburuak 27.1. gaia (Bozeramaileen Batzordeak bidalitako lehenengo ekimena) jarraian jorratzea erabaki du.

\* \* \*

**Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, GI-20 errepidearen inguruan, Intxaurren, zuhaitz-mozketa masiboari buruzkoa.**

Haizea Garayek interpelazio hau azaldu du:

“Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegui, Udaltzaren Organo Araudiaren 97. artikularen babesean, GI-20 errepidean, Intxaurren, zuhaitzak masiboki mozteari buruzko PREMIAZKO ZUZENKO INTERPELAZIO HAU aurkezten dio Eneko Goia alkateari, UDALBATZAN aztertzeko.

### PREMIAREN JUSTIFIKAZIOA

Azken egunotan, talde ekologistek salatu dute 180 zuhaitz inguru markatu eta zenbakitu dituztela Etzieta parkearen inguruan, Mons pasealekuaren eta GI-20 errepidearen artean, Intxaurren auzoan, zehazki, Marrutxipi inguruan, errepide horretan lotune bat egitea aurreikusita baitago, hirirako sarbide berri bat sortzeko. Gure ustez, udal-gobernuak ez ditu zuhaitz horiek moztu behar, GI-20 errepidearen zirkulazio-maila handiak Donostiako eremu horretan eragiten duen kutsadura akustikoaren eta ingurumen-kutsaduraren aurrean hesi-lana egiten baitute.

### JUSTIFIKAZIOA

14:02 h y la abandona a las 14:06 h)

### Otros/as:

Prensa (Diario Vasco)

**Secretaria:** Ana Pérez Galarraga, por delegación del Secretario.

\* \* \*

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

\* \* \*

Aprovechando la presencia del Sr. Insausti Maisterrena y con la conformidad de todos los y las presentes, el Presidente decide tratar a continuación el asunto n.º 27.1 (primera de las iniciativas remitidas por la Junta de Portavoces).

\* \* \*

**Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a la tala masiva de arbolado en el entorno de la GI-20 a su paso por Intxaurren.**

La Sra. Garay Gallastegui presenta la siguiente interpelación:

“Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 97 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACION DIRECTA URGENTE PARA SU TRATAMIENTO EN PLENO, al alcalde, D. Eneko Goia, relativa a la tala masiva de arbolado en el entorno de la GI-20 a su paso por Intxaurren.

### JUSTIFICACIÓN DE LA URGENCIA

En los últimos días grupos ecologistas han denunciado que unos 180 árboles han sido marcados y numerados para su tala en el entorno del parque Etzieta, entre el paseo de Mons y la GI-20 a su paso por el barrio de Marrutxipi, donde está previsto crear el pinchazo de esta carretera para crear un nuevo acceso a la ciudad. Consideramos que el gobierno municipal ha de evitar la tala de este arbolado que actúa de barrera frente a la contaminación acústica y medioambiental que provoca el intenso tráfico de la carretera GI-20 en este tramo urbano.

### JUSTIFICACIÓN



Zuhaitzak eta biodibertsitatea galtzeak eragin negatiboa du pertsonen osasunean. Kasu honetan, Intxaurrendoko parke batean, GI-20 errepidearengandiko babes naturala sortzen duten 180 zuhaitz mozten badira, hain zuzen ere errepide horretan ibilgailuentzako lotune berri bat egiteko, eragin negatibo bikoitza izango du. Alde batetik, zuhaitzak mozteak ingurunearen artifizializazioa areagotzen du; eta, bestetik, ingurunearen kutsadura handitzen du, eta horrek oso ondorio kaltegarriak sortzen ditu inguruko herritarren osasunerako. Zirkulazioa handitzeak eta zuhaitzak mozteak —pertsonen osasunerako ezinbestekoak direnak— kezka handia sortzen digu. Udal gobernu honek zerbait egin behar du. Duela bi urte baino gehiago larrialdi klimatikoaren deklarazioa onetsi zuenetik, konpromiso bat dauka. Aipatutako guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

#### PREMAIAZKO INTERPELAZIOA

1. Udal-gobernuak zergatik ez du inolako neurririk hartu Intxaurrendoko Etzieta parkean seinalezatu eta zenbakitu diren zuhaitzak ez mozteko?
2. Aipatutako 180 zuhaitz horiek mozten badira, GI-20 errepideak Marrutxipi parean eragiten duen kutsadura akustikoaren eta ingurumen-kutsaduraren aurrean, nola bermatuko zaie inguruko auzotarrei egungo zuhaitz-hesia edukitzen jarraituko dutela?
3. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, baloratu al duzue zer eragin izango akustiko eta ingurumen-eragin izango duen Marrutxipi inguruko zuhaitzak kentzeak? Nola jokatu du udal-gobernuak inguruko horretako zirkulazioa areagotzeak eragingo duen kutsadura mugatzeko?
4. Udal-gobernuaren ustez, Marrutxipi inguruan GI-20 errepidearen lotune berria egiteko zuhaitzak mozteak areagotu egiten al du hirian deklaraturako larrialdi klimatikoa?
5. Berotze globalaren bilakaera kontuan hartuta, badirudi datozen urteetan bizkortu egingo dela prozesu hori. Udal-gobernuaren ustez, Marrutxipiren kasuan bezala, hiri-bilbean zuhaitz-masak moztea negatiboa izan al daiteke, eta beraz, hiriaren berotze-prozesua areagotu al dezake?
6. Posible izango al da Etzieta parkeko eremu horretan moztu nahi diren zuhaitzak lehengoratzeta edo ordezteta? Udal-gobernuak kalkulatu al du zuhaitz horiek moztu behar diren ingurunean egungoen tamaina eta adin bereko zuhaitzak edukitzeko berreskuratze-prozesu bat

La pérdida de arbolado y biodiversidad provoca un efecto negativo sobre la salud de las personas. En el caso concreto de la previsible pérdida de 180 árboles en un parque de Intxaurrendoko que sirve de barrera natural frente a la carretera GI-20 por el proyecto de creación de un nuevo acceso a turismo desde esta carretera va a tener un doble efecto negativo. Por un lado, la pérdida de arbolado provoca una mayor artifizialización del entorno y por otro lado supone un incremento de la contaminación del entorno con consecuencias muy dañinas para la salud de las vecinas del entorno. Un aumento del tráfico sumado a la pérdida de arbolado tan imprescindible para la salud de las personas, nos genera mucha preocupación. Este gobierno municipal ha de actuar. Tiene un compromiso adquirido tras la declaración de la emergencia climática en la ciudad hace más de dos años. Por todo ello presentamos la siguiente:

#### INTERPELACIÓN URGENTE

1. ¿Por qué motivo el gobierno municipal no ha tomado ninguna medida para evitar la tala de arbolado que ha sido señalado y numerado en el parque Etzieta de Intxaurrendoko?
2. ¿Cómo se va a garantizar que las vecinas del entorno puedan seguir teniendo la actual barrera arbórea frente a la contaminación acústica y medioambiental que provoca la GI-20 a su paso por Marrutxipi si se eliminan 180 árboles del entorno?
3. ¿Han valorado junto a la Diputación Foral de Gipuzkoa el impacto acústico y medioambiental que va a provocar la eliminación del arbolado del entorno de Marrutxipi y cómo se va a actuar para frenar la contaminación que va a provocar el incremento de tráfico en la zona?
4. ¿Considera que la pérdida de arbolado en la zona de Marrutxipi por el nuevo acceso de la GI-20 ahonda en la situación de emergencia climática declarada en la ciudad?
5. El proceso de calentamiento global apunta a que se va a acelerar en los próximos años, ¿considera el gobierno municipal que eliminar masa arbórea de la trama urbana como en el caso de Marrutxipi puede ser negativo y acelerar el calentamiento en la ciudad?
6. ¿Va a ser posible la restitución o sustitución de los árboles que está previsto talar en el parque Etzieta en ese mismo ámbito? ¿Han calculado si es posible recuperar la misma cantidad de árboles con el tamaño y porte actuales en el entorno donde van a ser talados y,



abian jar daitekeen, eta hala bada, zenbat denbora beharko den zuhaitz horiek egungoen tamainara iristeko?

Donostian, 2022ko maiatzaren 25ean  
Haizea Garay Gallastegui  
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia”

Haizea Garayek eta Jon Insaustik hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(Jon Insausti bileratik atera da)*

\*\*\*

Jarraian, deialdiak gaiak aztertzeko aurreikusituen hurrenkerari ekin diote berriro.

\*\*\*

### **1.- 2022ko maiatzaren 16an izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat jotzeko.**

Bozketa egin eta aho batez onartu dute 31. akta, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilerari dagokiona.

### **2.- Pertsonen eta salgaien mugikortasun-jarduerak kudeatzeko zuzeneko kudeaketa onartzea Compañía del Tranvía de San Sebastián SAU sozietatearen bidez, bai joan-etorriak ezartzeko, bai informazioa hobetzearekin edo baliabideak erabiltzearekin lotutako jarduerak garatzeko.**

Pilar Aranak proposamena azaldu du.

Idazkariak eta Garbiñe Alkizak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

2. gaia botoetara jarri eta aldeko irizpena jaso du, honako botoak eman direla:

- Aldeko botoak: 6 (3, EAJ-PNV; 2, PSE-EE; 1, PP)

en caso de poder recuperarse, cuánto tiempo sería necesario para conseguir que alcancen ese tamaño?

Donostia, a 25 de mayo de 2022  
Haizea Garay Gallastegui  
Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia”

Intervienen en este punto la Sra. Garay Gallastegui y el Sr. Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(El Sr. Insausti Maisterrena abandona la sesión)*

\*\*\*

A continuación, se retoma el orden de tratamiento de los asuntos previsto en la convocatoria.

\*\*\*

### **1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 16 de mayo de 2022.**

Se aprueba por unanimidad el acta número 31, correspondiente a la sesión celebrada el día 16 de mayo de 2022.

### **2.- Aprobar la Gestión Directa mediante la Sociedad Compañía del Tranvía de San Sebastián SAU de la Gestión de actuaciones de movilidad de personas y mercancías, tanto en la implantación de medios de desplazamiento como en el desarrollo de actividades ligadas con la mejora de la información o utilización de los diversos medios.**

La Sra. Arana Pérez expone los términos de la propuesta.

Intervienen en este punto la secretaria y la Sra. Alkiza López de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

Sometido a votación el asunto n.º 2, es informado favorablemente con los siguientes votos:

- Votos a favor: 6 (3, EAJ-PNV; 2, PSE-EE; 1, PP)  
- Votos en contra: 0



- Aurkako botoak: 0  
- Abstentzioak: 3 (2, EHBILDU; 1, ELKARREKIN DONOSTIA)

### **3.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, hiriko udal-aparkalekuen irisgarritasunari buruz.**

Jorge Motak honako interpelazio hau irakurritzat eman du:

“Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua babestean, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, Donostiako udal aparkalekuen irisgarritasunari buruzkoa, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Zerbitzuak) azter dadin.

#### JUSTIFIKAZIOA

Duela hilabete batzuk esan zigutenez, Artzain Onaren aparkalekuan, enpresa adjudikaziodunak igogailu bat jartzeko proiektu bat dauka abian, baina oraingoz geldituta dago, metroaren obrak eta Artzain Onaren lorategien ingurua berrurbanizatzeko lanak amaitu arte. Hau da, udal-aparkaleku horretan ez dago inolako irisgarritasunik.

Baina Udalaren titulartasuneko emakida bidezko aparkalekuen artean Artzain Onarena ez da irisgarritasunik ez duen bakarra. Easoko eta Txofreko aparkalekuak egoera berean daude. Eta bi kasu horietan, inguruan ez dago egiteke dagoen obrarik, enpresa adjudikaziodunek erabiltzaileen irisgarritasun unibertsala bermatzeko obrak egin ahal izatea eragozten duenik.

Iazko martxoko Udalbatzan, gure udal taldeak aurkeztutako mozio batean, Donostiako aparkaleku guztien irisgarritasuna ezagutzeko eta irisgarritasun hori bermatzeko beharrezko ekintzak abian jartzeko eskatu genuen. Gobernu taldeak mozio hori ezetsi egin zuen. Ez dakigu zergatik ezetsi zen puntu hori, baina funtsezkoa iruditzen zaigu azterlan hori egitea.

Hori dela eta, honako hau aurkezten dugu:

#### INTERPELAZIOA

1. Gobernu taldeak zergatik ez du Donostiako aparkaleku guztien irisgarritasuna ezagutzeko azterlanik eta irisgarritasun hori bermatzeko beharrezko ekintzak abian jartzen?

- Abstenciones: 3 (2, EHBILDU; 1, ELKARREKIN DONOSTIA)

### **3.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la accesibilidad de los parkings municipales de la ciudad.**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la accesibilidad de los parkings municipales de la ciudad.

#### JUSTIFICACIÓN

En el parking del Buen Pastor, según se nos dijo hace unos meses, la empresa adjudicataria tiene un proyecto para instalar un ascensor pero éste está parado a la espera de que finalice las obras de la pasante del metro y la reurbanización del entorno de los jardines del Buen Pastor. Es decir, nula accesibilidad en este aparcamiento municipal.

Pero no solo es el parking del Buen Pastor el que carece de accesibilidad entre los aparcamiento en concesión de titularidad municipal. Tanto el de Easo como el del Chofre están en la misma situación. Y en ambos casos, no hay obra pendiente en el entorno que impida que las empresas adjudicatarias puedan realizar las obras necesarias para garantizar la accesibilidad universal para los usuarios de los mismos.

En en Pleno Municipal de marzo del pasado año, en una moción de este Grupo Municipal se pedía poner en marcha un estudio para conocer la accesibilidad de todos los parkings de San Sebastián y para adoptar las acciones necesarias que garanticen dicha accesibilidad. La moción fue rechazada por el Equipo de Gobierno. No entendemos los motivos por los que fue rechazado este punto, pero nos parece fundamental que se realice dicho estudio.

Por estos motivos, presentamos la siguiente

#### INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los el Equipo de Gobierno no ha realiza un estudio para conocer la accesibilidad de todos los parkings de San Sebastián y para tomar las acciones



2. Gobernu Taldeak ba al du asmorik aparkaleku horietako irisgarritasun-arazoak konpontzeko?

3. Erantzuna baiezkoa bada, noiz?

4. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?

Donostian, 2022ko ekainaren 3an

Borja Corominas Fisas,  
Udal Talde Popularreko bozeramailea”

Pilar Aranak eta Jorge Motak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

#### **4.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, hiriko txorkoen uzkeriari buruz.**

Jorge Motak interpelazio hau irakurritzat eman du:

“Talde Popularreko zinegotzi Mikel Lezama Zubeldiak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, hiriko zuhaitz-txorkoak utzita daudela eta, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) erantzun dezan.

#### **JUSTIFIKAZIOA**

Herritarrek kexa ugari jarri dituzte hiriko zuhaitz-txorkoen egoera dela eta; izan ere, utzita daudela dirudi: belarrak hartuta daude, ia metro ere hazita, eta, zenbait kasutan, espaloia ere hartzen dute.

Joan den udaz geroztik, Donostia “Txorko biziak” ingurumen-proiektua garatzen ari da, orain arte behar bezala aprobetxatzen ez ziren espazio batzuetan naturaren lana indartzeko. Cervantes plazan, Alderdierren, Zurriola pasealekuan, Pio Barojan eta hiriko beste eremu askotan, zuhaitz-txorkoetako belarrak eta loreak beren gogara hazten dira, kontrolik gabe, eta, hasieran proiektuak guztiontzat onuragarri bazirudien ere, urtebeteren buruan, utzikeriaren eta mantentze-faltaren sentrazioa ematen du.

necesarias para garantizar dicha accesibilidad ?

2. ¿Tiene el Equipo de Gobierno intención de dar solución de accesibilidad a estos parkings?

3. En caso de respuesta afirmativa, ¿cuándo?

4. En caso de respuesta negativa, ¿cuáles son los motivos?

En San Sebastián, a 3 de junio de 2022

Borja Corominas Fisas  
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Intervienen en este punto la Sra. Arana Pérez y el Sr. Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

#### **4.- Interpelación, presentada por el PP, sobre la situación de dejaz de los alcorques de la ciudad.**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

“Mikel Lezama Zubeldia, Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la situación de dejadez de los alcorques de la ciudad.

#### **JUSTIFICACIÓN**

Son numerosas las quejas de los ciudadanos sobre el estado de los alcorques de la ciudad, que presentan una imagen de falta de cuidado, repletos de hierbas, alcanzando incluso casi el metro de altura e invadiendo, en algunos casos, la acera.

Desde el pasado verano San Sebastián viene desarrollando el proyecto medioambiental “alcorques vivos” para fortalecer la labor de la naturaleza en unos espacios que hasta ahora estaban desaprovechados. En los alcorques del entorno de la Plaza de Cervantes, Alderdi Eder el Paseo de la Zurriola, Pío Baroja y otras muchas zonas de la ciudad, las hierbas y flores crecen a sus anchas, sin control, y lo que en un principio era un proyecto que podía resultar beneficioso para todos, al cabo de un año da sensación de dejadez y falta de mantenimiento.



Hori dela eta, hau da gure

### INTERPELAZIOA

1. Gobernu-taldea zergatik ez da txorkoak behar bezala mantentzen ari?
2. Gobernu-taldeak ba al du asmorik "Txorko biziak" proiektua bertan behera uzteko?
3. Hala bada, noiz?
4. Hala ez bada, zergatik?

Donostia, 2022ko ekainaren 3a

Mikel Lezama Zubeldia  
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea"

Marisol Garmendiak eta Jorge Motak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

#### **5.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Zuatzen autobus zerbitzua berrezartzeari buruz.**

Jorge Motak irakurritzat eman du interpelazio hau:

"PP taldeko zinegotzi Jorge Mota Iglesiasek, Udaltzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia alkateari, Zuatzen autobus-zerbitzua berrezartzeari buruz, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) azter dadin

### JUSTIFIKAZIOA

Otsailaren 7tik, Bentaberri 5 linea Zuatzen biribilguneraino bakarrik iristen da, enpresa-parkearen amaieraraino joan gabe. Zuatzen barruan geralekurik ez egoteak arazo larria eragin die eremu horretako erabiltzaileei, langileei eta parkearen amaieran dauden instalazio medikoetara doazen pertsonen; gainera, ez dago geralekua kendu dela adierazten duen seinalerik, eta erabiltzaile asko denbora luzez egon dira han zain, baina autobusa etorri ez.

Horri buruz galdetu genuenean, gobernu-taldeak erantzun zuen ezin zutela zerbitzu hori berrezarri Kontxa pasealekua berriz ireki eta 5. linearen ordutegia lehengoratu arte. Maiatzaren 30az

Por estos motivos, presentamos la siguiente

### INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no está realizando un correcto mantenimiento de los alcorques?
2. ¿Tiene el Equipo de Gobierno intención de abandonar el proyecto "alcorques vivos"?
3. En caso de respuesta afirmativa, ¿cuándo?
4. En caso de respuesta negativa, ¿cuáles son los motivos?

En San Sebastián, a 3 de junio de 2022

Mikel Lezama Zubeldia  
Portavoz del Grupo Municipal Popular"

Intervienen en este punto la Sra. Garmendia Beloqui y el Sr. Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

#### **5.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre el restablecimiento del servicio de autobús en Zuatzen.**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

"Jorge Mota Iglesias, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre el restablecimiento del servicio de autobús en Zuatzen.

### JUSTIFICACIÓN

Desde el pasado 7 de febrero la línea 5 Bentaberri solo hace servicio hasta la rotonda de Zuatzen, sin entrar hasta el final del polígono. El hecho de que no haya paradas dentro de Zuatzen ha supuesto un grave trastorno para los usuarios de la zona, trabajadores y personas que acuden a las instalaciones médicas existentes al final del polígono, con el agravante de que al no estar señalizado la supresión de la parada, son muchos los usuarios que han esperado por un largo espacio de tiempo, sin que el autobús llegara.

Cuando preguntamos por este asunto, la respuesta del Equipo de Gobierno fue que no podían restablecer este servicio hasta que el Paseo de la Concha volviera a abrirse al tráfico y



geroztik, gidariak berriz hasi dira Kontxa pasealekuko bigarren erreia erabiltzen.

Hori dela eta, hau da gure

#### INTERPELAZIOA

1. Udal Gobernuak zergatik ez du ostera ere eraman 5. linearen zerbitzua Zuatzen amaierarano?
2. Gobernu-taldeak ba al du asmorik enpresa-parkean zerbitzu-hori berrezartzeko?
3. Hala bada, noiz?
4. Hala ez bada, zergatik ez?

Donostia, 2022ko ekainaren 2a

Jorge Mota Iglesias  
Udaleko Talde Popularreko zinegotzia”

Pilar Aranak eta Jorge Motak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

#### **6.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Boulevardeko aparkalekuaren sarrerari buruz.**

Jorge Motak irakurritzat eman du interpelazio hau:

“Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, interpelazio hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, Boulevardeko aparkalekuko sarrerari buruz, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) erantzun dezan.

#### JUSTIFIKAZIOA

Boulevardeko aparkalekuaren sarrera ez dago behar bezala seinaleztatuta, hau da, asfaltoan ez dago “P” urdinik margotuta, eta horrek han sartzea zailtzen die Argentinako Errepublikaren pasealekutik datozen autoei. Ohikoa da nahaste hori, eta, azkenean, autobus-erreian sartzen dira. Horrek zailtasun bat gehiago dakar, bidegurutzean marka ugari baitago, bai ohiko erabiltzaile ez direnentzat, bai turistentzat. Eta izan ere, istripu bat baino gehiago izan da sarrera horretan.

podieran volver a establecer los horarios normales de la línea 5. Desde el lunes 30 de mayo los conductores han vuelto a circular por el segundo carril del paseo de La Concha.

Por estos motivos presentado la siguiente

#### INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Gobierno Municipal no ha restablecido el servicio de la línea 5 hasta el final de Zuatzu?
2. ¿Tiene previsto el equipo de Gobierno intención de volver a restablecer este servicio en el polígono?
3. En caso afirmativo, ¿en qué plazo?
4. En caso negativo ¿por qué no?

San Sebastián, a 2 de junio de 2022

Jorge Mota Iglesias  
Concejal del Grupo Municipal Popular”

Intervienen en este punto la Sra. Arana Pérez y el Sr. Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

#### **6.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la entrada del parking del Boulevard.**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la entrada del parking del Boulevard.

#### JUSTIFICACIÓN

La entrada del parking del Boulevard no está señalizada correctamente con una “P” azul en el asfalto, dificultando la entrada a los coches que vienen por República Argentina. Es habitual la confusión y acaban metiéndose en el carril bus. Esto supone una dificultad añadida debido a la gran cantidad de marcas viales existentes en el cruce tanto para los usuarios que nos son habituales como para los turistas. De hecho, ya han ocurrido varios accidentes en esta entrada.





Hori dela eta, hau da gure

### INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez dago behar bezala seinaleztatuta Boulevardeko aparkalekuko sarbidea?
2. Gobernu-taldeak ba du arazoa konpontzeko asmorik?
3. Hala bada, noiz?
4. Hala ez bada, zergatik?

Donostia, 2022ko ekainaren 3a

Borja Corominas Fisas  
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”

Pilar Aranek eta Jorge Motak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

### **7.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, kamioiak Borroto pasealekuko kalearen estutasunetik iragarzea ezinezkoa dela eta.**

Jorge Motak irakurritzat eman du interpelazio hau:

“Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, interpelazio hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, Borroto kalea hain estua izanda kamioiak handik pasatu ezin direla eta, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) erantzun dezan.

### JUSTIFIKAZIOA

Borroto pasealekuan, igerilekutik supermerkatu aldera doan bihurgunean, BMko banaketa-kamioiak sartzan diren bidea oso estua da, eta lorategira igo behar izaten dute beti, pasatzeko nahikoa lekurik ez dutela eta.

Hori dela eta, hau da gure

### INTERPELAZIOA

1. Gobernu-taldeak zergatik ez du

Por estos motivos, presentamos la siguiente

### INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el acceso al parking del Boulevard no está correctamente señalado?
2. ¿Tiene el Equipo de Gobierno intención de solucionarlo?
3. En caso de respuesta afirmativa, ¿cuándo?
4. En caso de respuesta negativa, ¿cuáles son los motivos?

En San Sebastián, a 3 de junio de 2022

Borja Corominas Fisas  
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Intervienen en este punto la Sra. Arana Pérez y el Sr. Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

### **7.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la la imposibilidad de paso de camiones por la estrechez de la calle del Paseo Borroto.**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la la imposibilidad de paso de camiones por la estrechez de la calle del Paseo Borroto.

### JUSTIFICACIÓN

En el paseo de Borroto, en la curva que sube de la zona de la piscina hacia la zona del supermercado, la vía por donde acceden los camiones de reparto del BMes muy estrecha, y dichos camiones siempre se tienen que subir al jardín porque no tienen suficiente espacio para pasar.

Por estos motivos, presentamos la siguiente

### INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el



aparkalekuan aldaketaren bat egiten kamioiak lorategia hondatu gabe igaro ahal izan daitezen?

2. Gobernu-taldeak badu egin beharreko aldaketak egiteko asmorik?
3. Hala bada, noiz?
4. Hala ez bada, zergatik?

Donostia, 2022ko ekainaren 5a

Borja Corominas Fisas  
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”

Pilar Aranak eta Jorge Motak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

### **8.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Donostiako hareatzak uda-sasoitik kanpo garbitzeari buruz.**

Jorge Motak irakurritzat eman du interpelazio hau:

“Talde Popularreko zinegotzi Mikel Lezama Zubeldiak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, Donostiako hondartzak uda-sasoitik kanpo ere garbitzeari buruz, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) erantzun dezan.

#### JUSTIFIKAZIOA

Udalaren webgunean jartzen duenez, Donostiako hondartzak urte osoan garbitzen dira, baina momentu desberdinak bereizi behar dira, egin beharreko lan motaren edo lanaren intentsitatearen arabera:

- Udaldia:
- ekainaren 1etik 15era eta irailaren 15etik 30era: erdi mailako intentsitatea.
- ekainaren 15etik irailaren 15era: intentsitate handia eta baliabide asko.
- Uda aurretik eta uda ondoren:
- maiatzaren 15etik 31ra eta urriaren 1etik 15era.
- Udako prestakuntza lanak egiten dira, hala nola harea berdintzea. Langileen presentzia tartekoa da, udan eta urteko gainerako sasoietan izaten denarekin alderatuz.
- Urteko gainontzeko hilabeteetan:

Equipo de Gobierno no realiza un cambio en la zona de aparcamiento para que pueda pasar este camión sin estropear el jardín?

2. ¿Tiene el Equipo de Gobierno intención de realizar los cambios necesarios?
3. En caso de respuesta afirmativa, ¿cuándo?
4. En caso de respuesta negativa, ¿cuáles son los motivos?

En San Sebastián, a 5 de junio de 2022

Borja Corominas Fisas  
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Intervienen en este punto la Sra. Arana Pérez y el Sr. Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

### **8.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la limpieza de los arenales de San Sebastián fuera de la temporada estival.**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

“Mikel Lezama Zubeldia, Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la limpieza de los arenales de San Sebastián fuera de la temporada estival.

#### JUSTIFICACIÓN

Según refleja la web municipal, la limpieza de las playas en San Sebastián se realiza durante todo el año, distinguiendo diferentes momentos según el grado de intensidad y/o las funciones que se realizan:

- Temporada de verano:
  - del 1 al 15 de junio y del 15 al 30 de septiembre: intensidad media.
  - del 15 de junio al 15 de septiembre: máxima intensidad y recursos.
- Temporada pre y post estival:
  - del 15 al 31 de mayo y del 1 al 15 de octubre.
  - Funciones preparatorias de la temporada, como explicación de arenas,... presencia de plantilla intermedia entre verano y resto del año.
- Resto del año:



- Hondartzak egunero zaintzen dira. Bitarteko mekanikoak ere erabiltzen dira.

Gainera, webgunearen arabera, urteko sasoi edozein dela ere, neurri egokiak hartzen dira, ahalik eta azkarren, beharrezkoa den guztietan. Ohikoena hondakinak jasotzea izaten da, eurijasa handia edo ekaitza dagoenean hondakin asko biltzen baita hondartzetan.

Alabaina, uda aurreko sasoiari gaude, eta hondartzak ez daude behar bezain garbi. Maiatzean ohikoa izan da hondartzetako erabiltzaileen kezak entzutea, gure hondartzetan makila eta adar ugari —are beira zatiak eta botilak ere— zeudela eta.

Hori dela eta, hau da gure

#### INTERPELAZIOA

1. Gobernu-taldea zergatik ez da hondartzak behar bezala mantentzen ari?
2. Badu mantentze hori egiteko asmorik?
3. Hala bada, noiz?
4. Hala ez bada, zergatik?

Donostia, 2022ko ekainaren 2a

Mikel Lezama Zubeldia  
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”

Marisol Garmendiak eta Jorge Motak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(12:59an Martin Ibabe bilerara bertaratu da)*

*(13:00etan Duñike Agirrezabalaga bilerara sartu da)*

**9.- PP taldeak aurkeztua, Kontxako eta Ondarretako hondartzetako kabina kolektiboen obraren behin-behineko itxierari buruz.**

Jorge Motak irakurritzat eman du interpelazioa hau:

- Mantenimiento diario de las playas. Utilización de medios mecánicos.

Además, también según la web, cualquiera que sea la época del año, se adoptan las medidas precisas cada vez que las circunstancias lo requieren y con carácter inmediato. El caso más habitual para estas intervenciones ocurre con ocasión de fuertes lluvias y temporales que implican un incremento de residuos a las playas.

Pero lo cierto es que estamos en temporada preestival, y las playas no están todo lo limpias que deberían. Durante el mes de mayo ha sido habitual escuchar las quejas de usuarios de las playas por la cantidad de palos y ramas acumuladas en nuestros arenales, incluso cristales o botellas.

Por estos motivos, presentamos la siguiente

#### INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no realiza un mantenimiento correcto de la playa?
2. ¿Tiene el Equipo de Gobierno intención de realizar dicho mantenimiento?
3. En caso de respuesta afirmativa, ¿cuándo?
4. En caso de respuesta negativa, ¿cuáles son los motivos?

En San Sebastián, a 5 de junio de 2022

Mikel Lezama Zubeldia  
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Intervienen en este punto la Sra. Garmendia Beloqui y el Sr. Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(El Sr. Ibabe Eceiza se incorpora a la sesión a las 12:59 h)*

*(La Sra. Agirrezabalaga Ugarte se incorpora a la sesión a las 13:00 h)*

**9.- Interpelación, sobre el cierre provisional de la obra de las cabinas colectivas de las playas de La Concha y Ondarreta.**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:



“Talde Popularreko zinegotzi Mikel Lezama Zubeldiak, Udaltzatzen Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, Kontxa eta Ondarreta hondartzetako kabina kolektiboak direla eta, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) erantzun dezan.

#### JUSTIFIKAZIOA

Kontxa eta Ondarreta hondartzetako kabina kolektiboak berritu behar zirela eta, aurreikusita zegoen otsailaren 1etik maiatzaren 31ra aldageletako atek ixtea eta herritarrentzako zerbitzuak etetea.

Hala ere, maiatzaren hasieran prentsan irakurri genuen hasieran aurreikusitako lanak baino gehiago beharko direla kabina kolektiboak berritzeko, eta, beraz, obrak ez direla aurreikusitako datan amaituko. Hori dela eta, gobernu-taldeak erabaki du uda amaitu arte atzeratzea lanok, erabiltzaileek hondartzaraian zerbitzu hori erabili ahal izan dezaten.

Bi proiektuak joan den udan onetsi ziren, baina, administrazio-izapideen ondorioz, lanak ezin izan dira esleitu urte honen hasierara arte (urtarrilaren 18an Ondarretakoa eta otsailaren 1ean Kontxakoa). Obrak egiteko epea 15 eta 20 astekoa zen, hurrenez hurren; epe justu samarra lanak uda baino lehen amaitzeko, ezustekoak ohikoak izaten dira eta udal obretan. Gainera, bi obretan izan da gainkostua, % 40 ingurukoa.

Ez gara hasiko obra zergatik atzeratu den aztertzen, baina ez zaigu egokia iruditzen obra, behin-behinekoa izan arren, nola errematatzen ari diren. Kontxako kabinak inguratzen dituen espaloia zementurik gabe asfaltatzen ari dira, eta, beraz, litekeena da baldosak irailaren 30era zatitu gabe ez iristea, esate baterako.

Hori dela eta, hau da gure

#### INTERPELAZIOA

1. Gobernu-taldea zergatik ez da obra behar bezala errematatzen ari?
2. Gobernu-taldeak ba al du asmorik obra behar bezala errematatzeko?
3. Hala bada, noiz?

“Mikel Lezama Zubeldia, Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre el cierre provisional de la obra de las cabinas colectivas de las playas de La Concha y Ondarreta.

#### JUSTIFICACIÓN

Las cabinas colectivas de las playas de La Concha y Ondarreta tenían previsto el cierre de puertas y suspensión de servicios a los ciudadanos para ser reformadas del 1 de febrero al 31 de mayo.

Sin embargo, a principios de mayo leíamos en prensa que la renovación de las cabinas colectivas ha necesitado de más trabajos de los previstos inicialmente y que por tanto las obras no iban a terminar en la fecha prevista, con lo que se decidió, por parte del Equipo de Gobierno, posponerlos hasta después del verano para que los usuarios puedan usar este servicio durante la temporada de playas.

Ambos proyectos se aprobaron el verano pasado, pero la tramitación administrativa impidió que la adjudicación no se produjera hasta principios de este año (18 de enero para Ondarreta y 1 de febrero para la Concha). Unas obras que con unos plazos de ejecución de 15 y 20 semanas respectivamente andaban bastante justas para su finalización antes del verano, teniendo en cuenta que los imprevistos en obras municipales son habituales. Por no hablar del sobrecoste en ambas obras que ronda el 40%.

No vamos a entrar a valorar el retraso de la obra, pero lo que no nos parece adecuado es la manera en la que se está rematando la obra por mas provisional que sea. El asfaltado de la acera que rodea las cabinas de la Concha se está poniendo sin cemento, por lo que es más que probable que las baldosas no lleguen al 30 de septiembre sin partirse, por ejemplo.

Por estos motivos, presentamos la siguiente

#### INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no está realizando un correcto remate de la obra?
2. ¿Tiene el Equipo de Gobierno intención de hacerlo adecuadamente?
3. En caso de respuesta afirmativa, ¿cuándo?



4. Hala ez bada, zergatik?

Donostia, 2022ko ekainaren 2a

Mikel Lezama Zubeldia  
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”

Duñike Agirrezabalagak eta Jorge Motak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(13:01ean Duñike Agirrezabalaga bileratik atera da)*

**10.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Pagola auzoan Stop bat lekuz aldatzeari buruz.**

Jorge Motak irakurritzat eman du interpelazio hau:

“Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, interpelazio hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, Pagola auzoko stop bat tokiz aldatzeari buruz, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) erantzun dezan.

**JUSTIFIKAZIOA**

Pagola auzoan, ez dago erraz auzo-erkidego baten garajera sartzeko. Erantsitako argazkian ikus daitekeen bezala (gezi gorri bat jarrita markatu dugu sarrera), maniobrak ondo egiteko, ezkererantz ireki behar dira, bestela espaloia hartzen da eta. Hor bada stop seinale bat, garajearen sarreraren pare-parean, kontrako erreian, eta, stop horretan autoren bat geldirik badago, ezin dira ondo egin garajearen sartzeko egin beharreko maniobrak. Irtenbidea oso erraza da: stop seinalea gorago jartzea.

Hori dela eta, hau da gure

**INTERPELAZIOA**

1. Gobernu-taldeak zergatik ez du egiten proposatutako aldaketa interpelazioaren xedea den stop horretan?
2. Gobernu-taldeak badu aldaketa hori egiteko asmorik?

4. En caso de respuesta negativa, ¿cuáles son los motivos?

En San Sebastián, a 2 de junio de 2022

Mikel Lezama Zubeldia  
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Intervienen en este punto la Sra. Agirrezabalaga Ugarte y el Sr. Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(La Sra. Agirrezabalaga Ugarte se retira a las 13:01 h)*

**10.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre el cambio de ubicación de un Stop en el barrio de Pagola.**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre el cambio de ubicación de un Stop en el barrio de Pagola.

**JUSTIFICACIÓN**

En el barrio de Pagola, la entrada al garaje de una de las comunidades de vecinos tiene una entrada complicada. Tal y como se refleja en la foto adjunta (marcada con una flecha en rojo la entrada al mismo), para poder maniobrar bien tienen que abrirse hacia la izquierda, ya que de lo contrario “se comen” la acera. Existe una señal de stop, justo enfrente de la entrada del garaje en el carril contrario, y si hay coches parados en ese Stop no pueden maniobrar bien para poder entrar en el garaje. La solución sería tan sencilla como poner el stop más arriba.

Por estos motivos, presentamos la siguiente

**INTERPELACIÓN**

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no realiza el cambio propuesto en el Stop objeto de la interpelación?
2. ¿Tiene el Equipo de Gobierno intención de realizar dicho cambio?



3. Hala bada, noiz?
4. Hala ez bada, zergatik?

Donostia, 2022ko ekainaren 3a

Borja Corominas Fisas  
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”

Pilar Aranak hitz egin du puntu honetan.  
Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**11.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, autobus-geltokietako Dbusen informazio-panelei buruz.**

Jorge Motak irakurritzat eman du interpelazio hau:

“Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, autobus-geltokietan Dbusen informazio-panelak jartzeari buruz, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) azter dadin.

**JUSTIFIKAZIOA**

Hiriko autobus-geltoki askok ez dute Dbusen informazio-panelik, autobusa geltokira zer ordutan iritsiko den adierazten duenik. Mundu guztiak ez dauka deskargatuta Dbusen aplikazioak, edo ez daki halakoak erabiltzen, batez ere adineko jendeak, eta horrek asko zailtzen die kolektibo horiei autobusa zehazki zer ordutan iritsiko den jakitea.

Hori dela eta, hau da gure

**INTERPELAZIOA**

1. Gobernu-taldeak zergatik ez ditu geltoki guztietan jartzen Dbusen informazio-panelak?
2. Gobernu-taldeak ba al du horretarako asmorik?
3. Hala bada, noiz?
4. Hala ez bada, zergatik?

Donostia, 2022ko ekainaren 5a

3. En caso de respuesta afirmativa, ¿cuándo?
4. En caso de respuesta negativa, ¿cuáles son los motivos?

En San Sebastián, a 3 de junio de 2022

Borja Corominas Fisas  
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Interviene en este punto la Sra. Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**11.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre los paneles informativos de Dbus en las paradas de autobús.**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre los paneles informativos de Dbus en las paradas de autobús.

**JUSTIFICACIÓN**

Muchas paradas de autobús de la ciudad carecen de paneles informativos de Dbus en los que reflejen los horarios a los que va a llegar el autobús a la parada. No todo el mundo tiene descargada las aplicaciones de Dbus, o no sabe usarla, sobre todo con gente mayor, lo que dificulta mucho a estos colectivos el conocer la hora exacta ala que va a llegar el autobús.

Por estos motivos, presentamos la siguiente

**INTERPELACIÓN**

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no coloca paneles informativos de Dbus en todas las paradas?
2. ¿Tiene el Equipo de Gobierno intención de hacerlo?
3. En caso de respuesta afirmativa, ¿cuándo?
4. En caso de respuesta negativa, ¿cuáles son los motivos?

En San Sebastián, a 5 de junio de 2022



Borja Corominas Fisas  
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”

Pilar Aranak hitz egin du puntu honetan.  
Esandakoak Bilkuren Egunerokoa grabatu dira.

**12.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Arriola pasealekuan autobusa kentzea eragin duen obrari buruz.**

Jorge Motak azaldu du interpelazio hau:

“Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, Arriola pasealekuko autobusa kentzea eragin duen obrari buruz, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) azter dadin.

**JUSTIFIKAZIOA**

Arriola pasealekuaren trazadura hobetzeko lanen ondorioz, eremu horretako bizilagunak autobus-zerbitzurik gabe geratu dira, bi hilabetez gutxienez. Dbusen 35. linea ez da iristen oraindik ibilbidearen amaieraraino, eta horrek modu larrian eragiten die bizilagunei, osasun-zentrorra joan behar duten herritarrei, eremu horretako etxebizitzetan lan egiten dutenei eta baita ikastolako langileei ere.

Hilabete eta erdi geroago, auzoko bizilagunek uste dute obra amaitu dela, eta ez dute ulertzen zergatik dagoen oraindik obraren hesia jarrita eta zergatik ez den autobus-zerbitzua lehengoratu.

Hori dela eta, hau da nire

